

## GOBERNU BATZARRA

2015. 11. 30

**Alkatea:**

**Olatz Peón Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria  
Nerea Letamendia Beloso  
Iñigo Alonso Sarasibar**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Beh. Beh. Kontuhartzailea:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko azaroaren hogeita hamarrean 08:00tan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Gipuzkoako Bertsozaleen elkartearekiko hitzarmena.

3.-“9.3 Korazonistak” azpiesparruaren borondatezko birpartzelazio proiektuari hasierako onespina ematea./Aprobación inicial del proyecto de reparcelación voluntaria del subambito “9.3 Corazonistas”.

4.- Paulo Rekondo kaleko Lur eremu bat udalaren esku uzteko lagapen hitzarmena/ Convenio para la cesion de suelo a favor del Ayuntamiento en la calle Paulo Rekondo.

5.- Langunea Tolosaldean 2015.

6.-Ferialeku teilatua eta leihoak konpontzeko obrak kontratatzea.

7.-Tolosako Triangulo Plazako lurrazpiko aparkalekuetarako oinezko sarrerak birgaitzeko lanei buruzko hitzarmena Tolosako Udala eta erabiltzaileen komunitatearen artean.

8.-36/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.

## **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko azaroaren 23an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.- Gipuzkoako Bertsozaleen elkartearekiko hitzarmena.**

Urtero badira dirulaguntza nominatibo batzuk eta horietako bat, 6.000 eurokoa, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari ematen zaio. Historia eginez, lehen, Euskara Zerbitzuak kudeatzen zuen, baina azken urteetan kopuru hori Kultura Departamentuak kudeatzen duen aurrekontuan sartu da, eta geroztik sail horrek kudeatzen du dirulaguntza hori.

Dirulaguntzak helburu du bertsozale elkarteak antolatuko dituen ekitaldiak San Juanetan finantziatzea.

Okerrak zuzentze aldera (garaiz kanpo dagoelako), dirulaguntza nominatiboetan erakundearen eta udalaren artean adostutako hitzarmena aurkeztu da.

Aipatu hitzarmena ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Hitzarmena onartzea eta 6.000 euroko dirulaguntza ematea Gipuzkoako Bertsozale elkarteari goian aipatutako helburuak betetzeko.

**BIGARRENA**.- Kultura departamentuaren buruari adieraztea hitzarmenak garaiz onartu behar direla, hau da, dirulaguntzak dituen helburuak bete aurretik.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari eta Gipuzkoako Bertsozaleen Elkarteari.

## **3.-“9.3 Korazonistak” azpiesparruaren borondatezko birpartzelazio proiektuari hasierako onespena ematea./Aprobación inicial del proyecto de reparcelación voluntaria del subambito “9.3 Corazonistas”.**

Borondatezko birpartzelazio-proposamenaren eduki formala eta azpiesparruko jabeekideen %100aren ahalordetza egiaztatuta, eta Hirigintza Batzordeak jaulki duen

Comprobado el contenido formal de la propuesta de reparcelación voluntaria, y acreditado el apoderamiento por el 100% de los propietarios del subámbito, y de

diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Hasierako onespina ematea “9.3 Korazonistak” azpiesparruko borondatezko Birpartzelazio proiektuari.

Behin betiko onespina jaso aurretik bermatu egin beharko da hartutako konpromisoak beteko direla. Horretarako urbanizazio largetan %7ko kopurua duen abala aurkeztu beharko da aldeztu aurretik.

**BIGARRENA.**- Proiektua jendaurrean jartzea, hoguei eguneko epean. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta egunkarietan.

Gainera, entzunaldia emango zaie, pertsonalki, interesatuei, aipatutako birpartzelazioak kaltetuak kontsideratzen direnek egokitzat dituzten alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Hirigintza eta azpiegitura batzordeari eta interesatuei.

conformidad con el dictamen emitido por la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ACUERDA**

**PRIMERO.**- Aprobar inicialmente el Proyecto de Reparcelación Voluntaria del subámbito “9.3 Corazonistas”.

Con anterioridad a la aprobación definitiva deberá garantizarse el cumplimiento de los compromisos asumidos mediante entrega de un aval equivalente al 7% de la cuantía de las cargas de urbanización.

**SEGUNDO.**- Someter el Proyecto a información pública, durante un plazo de veinte días, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el B.O. de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la prensa diaria.

Además, se dará audiencia a los interesados con citación personal, a fin de que las personas que se consideren afectadas por la citada reparcelación puedan efectuar las alegaciones que estimen oportunas.

**TERCERO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo y a los interesados.

#### **4.- Paulo Rekondo kaleko Lur eremu bat udalaren esku uzteko lagapen hitzarmena/ Convenio para la cesion de suelo a favor del Ayuntamiento en la calle Paulo Rekondo.**

Gaia erabaki gabe geratu da, hobeto aztertzeko.

#### **5.- Langunea Tolosaldean 2015.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2015eko martxoaren 25ean egindako bilkuran (2015eko martxoaren 31n argitaratu zen EHAOn).

Tolosako Udalak 366.333 euroko programa bat aurkeztu zuen 2015eko ekainaren 22an.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusianaren ebazpenaren bidez Tolosako Udalari 366.060,59 euroko dirulaguntza eman zitzaion.

Ildo horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute "Langunea Tolosaldean 2015" programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatzeko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Ondoren aipatzen diren enpresei dirulaguntza hauek ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko diren hitzarmenean jarritakoak betetzen badituzte.

Enpresa	Kontratu kopurua	Kontratu iraupena	Lanaldia	Langilea	Dirulaguntza
Angel Luis Oviedo Seguros	1	6 hilabete	Osoa	J.A.A.	6.000,00
Adem Asesores	1	6 hilabete	Osoa	M.A.R.	6.000,00
Asmek	1	6 hilabete	Osoa	M.C.U.	6.000,00
Asociación Jatorkin	1	6 hilabete	Osoa	M.O.L.	6.000,00
Boutique MP	1	6 hilabete	Osoa	AC.G.G.	6.000,00

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Enplegu departamentuari, Kontuhartzailetzari eta interesatuei.

### **6.- Ferialeku teilatua eta leihoak konpontzeko obrak kontratatzea.**

Izenburuan adierazten diren obrak kontratatzeko espedientea ikusita, Hirigintza koordinatzailea egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Onartzea Ferialeku teilatua eta leihoak konpontzeko obrak egiteko txosten baloratua eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko espedientea.

\* Lizitazio-tipoa hau da: 179.799,56 euro.

\* Aurreko zenbatekotik, balio erantsiaren gaineko zergari dagokio 31.204,88 euro.

**BIGARRENA**.- 179.799,56 euroko gastua baliatzea dagokion partidaren kargura.

**HIRUGARRENA**.- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeke, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea dagozkion gonbidapenak eginez.

## **7.-Tolosako Triangulo Plazako lurrarpiko aparkalekuetarako oinezko sarrerak birgaitzeko lanei buruzko hitzarmena Tolosako Udala eta erabiltzaileen komunitatearen artean.**

Tolosako Udalak Triangulo plazaren lurrarpian kokatutako ibilgailuen aparkalekuen jabea da. Aparkalekuaren eraiketa eta ondorengo aparkalekuen esleipena emakida bidez egin zen eta erabiltzaile desberdinen artean erabiltzaileen komunitatea osatu zen.

Euri uren ondorioz aparkalekuen oinezko sarreratan kalteak sortu dira eta beharrezkoa da oinezko sarrerarako eremuetan eta hauekin bat egiten duen urbanizazioan hainbat konponketa burutzea. Konponketa hauek STS egiturak enpresak udalaren eskariz idatzitako proiektuaren arabera burutuko dira.

Proiektua, Udal arkitektoaren arabera, egokia da eta 34.980,33 €-ko (BEZ barne) aurrekontua du.

Arrazoi horiengatik, komenigarria ikusi da alde biko hitzarmena sinatzea Tolosako Udala eta aparkalekuen erabiltzaileen komunitatearen artean .

Hitzarmenaren honetan, besteak beste, burutu beharreko lanen zenbatekoa, Tolosako Udalak ordaindu beharrekoak eta erabiltzaileen komunitateak ordaindu beharreko diru kopuruak zehazten dira. Era berean lan guzti hauen eraginkortasunari buruzko erantzukizun epeak eta baldintza ekonomikoak zehazten dira.

Aipatutako guzkia kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- STR egiturak idatzitako exekuzio txosten baloratua onartzea. Zenbatekoa: 34.980,33 euro (BEZ barne).

**BIGARRENA**.- Onartzea Tolosako Udala eta erabiltzaileen komunitatearen arteko hitzarmena.

**HIRUGARRENA**.- Olatz Peón alkateak onartutako hitzarmena gauzatzea.

**8- 36/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **36/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **307.704,57** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- **36/2015** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:30 tan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**